

# ARI NAIZELA ARI NAIZELA

*Doinuaren jasotzaileak: Iñaki Eizmendi "Basarri", Manuel Lekuona.*
*Bertso honen egilea: Pedro Jose Elizegi "Pello Errota" (1840-1919 Asteasu, Gipuzkoa).*

***Bertsoaren berri***
*"Pello Errota" tabernan dela, hor sartu da "Txirrita" (1860 Ereñotzu – 1936 Altza, Gipuzkoa).*
*Kantulagun minak dira biak eta, adarra jotzen, halaxe bota dio lehen bertsoa Pellok.*
*Ezaguna da Txirritak emandako erantzuna ere: "Pellok bi nola jantziko ditu bat besterikan ez du-ta".*

Ari naizela ari naizela
hor ikusten det **Txirrita**
eta zein ez da harrituko gaur
gizon hori **ikusita**
dudarik gabe egina dio
andregaiari **bisita**
oso dotore etorri zaigu
bi alkandora **jantzita**.